



ARAUTEGIA 2010

FUTBOL 11

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXIX. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, Barakaldon, Serraltako futbol zelaian 2010eko maiatzaren 29 eta 30 eta ekainaren 5ean. Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Liga sistema, itzuli bakarrekoa.

Mailak:

Infantilak: 1996 eta 1997an jaiotako mutilak.

2. EKIPOEN OSAKETA

Ekipoak honela osatuko dira: gehienez 20 jokalaria, delegatu bat eta entrenatzailea.

Aktan 18 jokalaria agertuko dira.

Ekipo bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bateratasunik gerta ez dadin.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Partiduak hogeita hamabostna minutuko bi zati izango ditu, hamar minutuko atsedenaldira batekin.

Partiduan zehar zazpi jokalaria ordezkatu ahal izango dira. Ligaren azken sailkapenean berdinketarik gertatu ez dadin, emaitza edozein delarik ere partiduaren amaieran ekipo bakoitzak bost penalti jaurtiko ditu.

4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO

ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

⇒ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN
IRIZPIDEAK

- 1º- Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidan lortutako emaitza
- 2º- Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
- 3º- Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
- 4º- Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
- 5º- Partidan lortutako aldeko golak guztira
- 6º- Aldeko penaltiak guztira
- 7º- Desberdintze partida

⇒ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN
IRIZPIDEAK

- 1º- Berdindutako taldeen arteko golen aldea
- 2º- Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
- 3º- Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituen
- 4º- Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituen
- 5º- Partida denboran zehar sarturiko gol guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 6º- Penalti guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
- 7º- kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituen
- 8º- kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituen
- 9º- Zozketa



5. BALOIA

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.

6. FUTBOL ZELAIA

Futbol zelaiko belarra artifiziala izango da.

7. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen eta bigarren sailkatutako ekipoei.

8. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeru nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

9. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretua.
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 2010eko otsailaren 22ko Agindua, 2010eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXIX. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariak, 2010eko martxoaren 17ko Ebazpena, 2010eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXIX. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskal Federazioaren Arautegian erabakitakoa.